

Gizakiaren pozoia urrea denean

Soja transgenikoaren negozioak milaka milioi euro mugitzen ditu urtero Argentinan. Lurjabe handiek, Monsanto multinazional erraldoiak eta Estatuak berak diru iturri ederra topatu dute soja transgenikoaren ekoizpenean. Azken urteetan, Argentinako lurrak landare genetikoki eraldatuak estali ditu, baina glifosato herbizidaren erabilera ezbaian jarri dute orain.

GORKA BERASATEGI

MAKINA BAT LURJABE eta nekazari erakarri dituen jarduera arriskuan egon daiteke, eta Argentinan egonezina sortu da zenbait botere-talde indartsutan. Kolokan dago soja transgenikoarentzako erabiltzen den herbizidaren legezketasuna, glifosato izeneko pozoia, eta ondorioz, soja transgenikoaren egungo ekoizpen eredua.

Glifosatoak parean hartzen dituen landareia guztiak akabatzen ditu, Monsanto enpresaren soja transgenikoa izan ezik, espreski pozoia aurre egiteko genetikoki eraldatua baitago. Monsantoen glifosatoak (Roundup izenez merkaturatua) eta soja transgenikoaren haziek (Roundup Ready) sojaren ekoizpenerako “pakete teknologikoa” osatzen dute. Bi produktu horiekin sojaren ekoizpena zabaltzea eta kontrolatzea lortu du Monsantoek AEBetan eta Hego Amerikan.

Net Hurbilen (1968 eta 2134 zbk.) azaldu genuenez, Monsantoen eta soja transgenikoaren zabalkundea azkarra izan da oso Argentinan. Sojak 1996an landatutako lurren %26a hartzen bazuen, 2007an %53ra handitu zen azalera eta hazi transgenikoen proportzioa, berriz, soja hazien %2 izatetik %99 izatera pasa da. Munduko soja ekoizlerik handien zerrendan Argentinak hirugarren postua eskuratu du horrela, AEB eta Brasilen atzetik.

Glifosatoaren eta Roundup Ready hazien uztartzeak lurjabe asko liluratzea lortu duen arren, ez da gauza bera gertatu zientzialariek eta ingurumenaren defendatzaileekin. Argentinako Ikerketa Zientifiko eta Teknikoetarako

Kontseilu Nazionalak (CONICET) glifosatoaren inguruko ikerketa argitaratu du maiztzean. Gizakiaren osasunarentzako kaltegarria dela baieztatu du lanak. Andres Carrasco zientzialariaren arabera, glifosatoak hesteetako, bihotzeko eta neuronetako arazoak sortzen ditu sojaz estalitako zelaietan erabiltzen dena baino 1.500 aldiz kopuru txikiagoarekin.

Ikerketa hori Ingurumenaren Aldeko Abokatu Argentinaren Elkartearen (AAdeAA) eskuetara heldu da eta abokatu elkarteak urteetan bilduak zituen hainbat salaketarekin batera Gorte Gorenera jo du babes-helegitea aurkeztera, ingurumenarekin loturiko oinarriko eskubideak urratu direlakoan.

Mariano Aguilar AAdeAA elkarteko zuzendariak argitu digu bilduta dauzkaten kasu horiek minbiziaz kaltetutako pertsonak direla, heriotza goiztiarra izan duten haurrenak, biriketako gaixotasunak izan dituztenak... Denak ere glifosatoarekin lotutako kasuak.

Aguilarek ondo daki glifosatoaren atzean zer nolako interes ekonomikoak dauden eta salaketak sortu duen zalaparta mediatikoak harritu badu ere, ez da kokildu. Bukaeraraino jarraituko duela baieztatu du nahiz eta bidea arriskutsua izan daitekeela badakien. Aitortu digunez, Andres Carrasco CONICETeko ikerlariak, glifosatoaren inguruko ikerketaren egileak, heriotza mehatxu anonimoak jaso ditu.

Horrez gain, intoxikazio informatiboei ere aurre egin behar izan dietela salatu du abokatu elkarteko lehendakariak. *La Nacion*

Andres Carrasco zientzialariaren arabera, glifosatoak hesteetako, bihotzeko eta neuronetako arazoak sortzen ditu sojaz estalitako zelaietan erabiltzen dena baino 1.500 aldiz kopuru txikiagoarekin



eta *Clarín* egunkariak gezurretan aritu direla jakinarazi du. “Gobernuarekin lotu nahi izan gaituzte glifosatoaren afera politizatzeke. Guk ez dugu loturarik Gobernuarekin eta ez gaude lurjabeen edo Argentinako landen aurka. Sojarekin ahalik eta errentagarritasunik handiena lortzea nahi dugu baina ingurumena babestuz eta argentinarren eskubi-deak errespetatuz”.

Glifosatoak osasun gaitzak eragiten ditu pozoia isurtzen den soja zelaien inguruetan. Hala ere, ez da hori sojaren ekoizte ereduak sortzen duen kalte bakarra. Eskaintzen zaion azaleraren handitzeak eta joera horren indartzeak gainontzeko laboreak urritu ditu. Dela artoa, garia, oloa edo ekilorea.

Gainera, soja landatzeko eremu berriak eskuratu nahian basoak geroz eta gehiago suntsitzen dira. 2004 eta 2008 urteen artean Euskal Herriaren azaleraren erdia adina baso suntsitu zen eta biodibertsitatea murrizten ari da. Nekazari txiki asko behartuta sentitzen da lurrak lurjabe handiei saltzera, eta ondorioz, nekazal lurretatik hiri handietako auzo txiroetara migratzera.

Beste horrenbeste, milaka urtetan basoetan bizi izan diren komunitate indigenen kasuan ere. Herri horien bizimoduaren ardatz dira basoak eta lurjabe handiak jabetza agiri batekin heltzen direnean indarrez bidaltzen dituzte inbertsiorako kapitalarekin erosi berri dituzten lurretatik, komunitate horien eta basoaren artean garatu den lotura estuari erreparatu gabe.

Nekazari txiki asko behartuta sentitzen da lurrak lurjabe handiei saltzera.

Le monde selon Monsanto izeneko dokumentalean (<http://ttiki.com/4156>), Marie Monique Robin kazetari frantsesak argi azaltzen du Monsanto enpresaren ibilbidea eta iraganean merkaturatu dituen produktu toxikoen arriskuak ezkutatzeko erabili izan dituen trikimailuak. Esaterako, behien esne-emaria handitzeko rGHB hormonaren sortzailea da Monsanto. Zenbait ikerketaren arabera behien metabolismoan aldaketak eragiten ditu eta hormona debekatua dago bai Europan baita Kanadan ere. Beste adibide bat: enpresa estatubatuarrak PBC materiala egiteari utzi behar izan zion 1970ean toxikoa zela frogatu zenean. PBCa fabrikatzen zen inguruan kalteak ordaintzera behartua izan da, milaka pertsona betiko kutsatzeagatik. Vietnameko gerran AEBetako armadak erabili zuen agente laranjaren ekoizpenean ere parte hartu zuen Monsanto.

Glifosatoari dagokionez, iraganean produktuarekiko nahikoa mesfidantza zegoen. Europan pozoia eragiten duen edukiontzia zeraman “biodegradagarria” etiketa, “toxikoa” diotenekin ordezkatu behar izan du, zenbait ikerketaren ondorioz. Datozen hilabeteetan ikusteko dago, ordea, sojaren errepubliketako batean ere glifosatoak kolpea jasoko duen ala ez. ■

Sojaren bilakaera eta ondorioei buruzko txostena
Plataforma Soja webgunean:
<http://soja.monocultivos.com/basededatos/DatosArgentina.htm>